

**SAN SEBASTIAN EGUNA.** Donostian haur eta helduen artean 14.000 lagunetik gora aterako dira danborradetan



JUAN HERRERO / EFE

San Sebastian egunari hasiera emateko orduan Konstituzio plaza lepo betetzen da.

# Sebastian bat bada zeruan...

Donostian, Azpeitian, Zangozan, Lakuntzan eta Tafallan ospatuko dute San Sebastian eguna

Erredakzioa | **DONOSTIA**

San Sebastian eguna da bihar, baina batzuek gaur gauek hasiko dute festa. Gipuzkoan, Donostian eta Azpeitian ospatzen dute San Sebastian eguna; eta Nafarroan, berriz, Tafallan, Zangozan eta Lakuntzan. Hala ere, Donostian antolatzen dute

egunik ikusgarriena. Gaur gauean, gauerdia baino lehenago helduen festa hasiko da, eta bihar goizean, gauean jardun dutenak ohean direnean, gazte-txoek garaia etorriko da. Danborradak gau eta egun entzungo dira, egun osoan.

Donostiarrak egun handia da biharkoa, eta hilabeteak eman

dituzte haur eta helduek berau prestatzen. Gauerdian, Gaztelubideko konpainiako zuzendari Juan Mari Abadek danborrak jotzen hasteko agindua ematen dienean entzungo da lehen burrundara, eta larunbat gauerdian entzungo dira azkenengoz. Tartean, 9.000 heldu eta 5.300 haur ibiliko dira Donostiako kale eta auzoetan, danborra jo eta jo.

*San Sebastian martxa*-k eman-gio hasiera egunari, ohikoa den gisan, Konstituzio plazan. Hortik aurrera, kalera aterako diren 85 konpainiak ordu ezberdinetan irtengo dira, 24 ordu-tan, eta leku ezberdinetatik.

Aurten bi konpainia berri aterako dira danborra jotzen Donostian: Altzako Koxkorak, Al-tzan, eta Hidalgo Berri, Anti-guan.

## 5.300 haur

Festa erdigunera iristean, eguerdiko 12:00etan, haurtxoen ordua iritsiko da. Alderdi Ederretik 5.300 haur eta 51 konpainia aterako baitira, Donostiako hirigunea zeharkatzeko. Hilabeteetako entseguek bihar emango dute beren fruitua.

Danborrada handi horretan Orixe ikastolako bi hurrek bete-ko dituzte ohorezko karguak. Amaia Urretabizkaia 11 urte-koa izango da Easo Ederra, eta Koldo Barandiaran 10 urtekoa jenerala.

Haurren danborradak Alderdi Eder uzten duenean, berriz, udaletxean Urrezko Danborra emango diote Diego Galani, duela gutxi Donostiako Zine-maldiko zuzendari izandakoari.

Jaiari amaiera emateko, 24:00etan bandera jaitziko dute; baina danbor hotsek jarraitu egingo dute, gauak isiltzen ez dituen bitartean behintzat.

## Azpeitian, urtez urte indartzen

1959an hasi ziren azpeitiarrak San Sebastian eguna ospatzen, eta dagoeneko erabat sustrai-tuta dago festa. Lau danborra-da aterako dira. Gaur gauean helduena aterako da, eta udaletxeko plazan bukatuko da; bihar goizean bi konpainiak eliza nagusirako bidea egingo dute udalbatzarekin batera; eguerdian, haurrak aterako dira, eta gauean beste danborrada bat egingo da. Gaueko danborradan 800 lagun inguruk

## GATETIK BESTERA

**DONOSTIA.** 24 ordutan ariko dira konpainiak Donostia osoan zehar, danborrak joz. Helduen 85 konpainia irtengo dira, eta 9.000 lagun inguruk parte hartuko dute. Haurren danborradan, berriz, 51 konpainia aterako dira, eta 5.300 haur inguru izango dira.

**AZPEITIA.** 1959an irten ziren lehenengo danborradak Azpeitiko San Sebastian egunean. Ordutik urtero irten dira. Gaueko helduen danborra-dan 800 lagun inguru irteten dira, haurren danborradan 400. Aurten konpainia berri bat irtengo da: Julian Barre-netxea abesbatza.

**LAKUNTZA.** Sakanako herri honetako Lakuntzako Pertza elkarteak antolatzen du San Sebastian eguneko danborrada. Altsasuko Txorongo txaranga lagun dutela, parte hartuko duten 60 danbor-joleek Donostiako danborra-detan jotzen diren pieza berak jotuko dituzte.

**ZANGOZA.** Ez da danborrada-rik egiten San Sebastian eguna ospatzeko, baina aste bu-kaera osoa ematen dute jaie-tan zangozarrek, eta larun-bata da egun nagusia. Zezen-suzkoa, buruhandiak eta erraldoiak, kale ikuskizunak eta dantzaldia izango dira.

**TAFALLA.** San Sebastian da Tafallako patroia, eta iragan asteen hasi zituzten jaiak. Gaur elkarte eta koadrilek afari oparoak egiten dituzte.

parte hartuko dute, eta 400 haur aterako dira bihar eguerdikoan.

## Zangoza, Lakuntza eta Tafalla

Nafarroan, Zangozan, Lakuntzan eta Tafallan ospatzen dute San Sebastian eguna; baina soilik Lakuntzan egiten dute danborrada. Hirurogei lagun inguru aterako dira bihar Lakuntzako Pertza elkarteak antolatutako danborradan.

Zangozan eta Tafallan danborradarik ez, baina badago bestelako festarik. Tafallan, gaurko koadrilek eta elkar-teek egiten dituzten afari oparoen ondoren burua altxatzeko gai denak hainbat ekitaldi izango ditu.

Tafallan, gainera, iragan as-teburuan hasi zituzten San Sebastian jaiak. Zangozan aste-buru osoa emango dute jaie-tan, baina biharkoa da egun nagusia.

## Zuzendari Gerentea (Erref. "Zuzendaria")

**Komunikazio enpresa berri batek Zuzendari Gerentea behar du.**

### Eskatzen da:

- . Prestakuntza: Ekonomiako edo Enpresa Zientzietako lizentziadun, Ingeniari edo pareko titularen jabe izatea
- . Dinamizatzailea izatea eta lidergo gaitasuna edukitzea taldeak zuzentzeko
- . Irudi eta Harreman Publikoetarako gaitasuna izatea

### Kontuan hartuko da:

- . Euskal Komunikabideen ezagutza eta horietan izan duen esperientzia
- . Komunikazio multimedien ezagutza eta horiekin duen esperientzia
- . Alor komertzialerako gaitasuna eta honen ezagutza
- . Ekimena eta sormena

### Eskaintzen da:

- . Proiektu berri eta interesgarria
- . Laneko kontratua
- . Baldintzak elkarren artean adostuko dira

Interesatuak curriculum, argazkia eta harremanetarako telefonoa bidali urtarrilaren 26a baino lehen helbide honetara:

**1281 Posta-kutxatila - DONOSTIA**

Kartazalean lanpostuari dagokion erreferentzia zehaztu.